
KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria · 2020ko ekaina · 206 zenb

OIER AGIRREZABALA FUNDAZURI

"Kalitatezko nekazaritzaren aldeko apustua egitea erabaki nuen"





MIKEL DEUNA EGOITZA COVID-19AREN ERASOAN

KORONABIRUSARI DISTANTZIA JARTZEN SASOI BATEKO ESKOBAK

KAIXO TXANTXANGORRIAK





IBARPLAS

· LEIHOAK · ATEAK ·

Itziarko Poligonoa, C5
20829 ITZIAR
Tel: 943 19 92 26

www.ibarplas.com
email: ibarplas@ibarplas.com

Telefonoak

Osasuna

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa..... 943 60 43 00
DYA zentrala..... 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00

Botikak

Lasuen-Elezgarai 943 19 50 26
..... 626 61 13 92
Lon Apraiz 943 60 32 50
..... 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar) 943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar) 943 74 11 77
Yudego (Elgoibar) 943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar) .. 943 74 12 77
Celia Barandela (Eibar) 943 20 69 84

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa 943 60 70 48
..... 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte bulegoa 943 60 42 47
Anai Arte taberna 943 60 34 10
Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 60 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Partzuergoa 902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 35 45
Udal Euskaltegia 943 60 30 94
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
ANTON taxia 666 22 19 99
XABI taxia 656 28 90 26
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 900 12 14 00
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 902 54 32 10
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87
Santa Catalina eleiza 943 60 32 00

Iritzixa

Malen Aldalur Azpillaga

GURE MERKATARI ETA TABERNARIEI

Ezustean harrapatu gintuen Covid 19ak, batzuk beste batzuk baino gehiago, eta ohartu orduko sartu gintuzten etxean. Bi aste izan behar zutenak bi hilabete bihurtu ziren eta ohitu egin ginen herrian herrikiderik gabe bizitzen. Justu-justu agurtu ditugu aurrez aurre bizilagunak atarian gurutzatu garenean, bi metroko distantzian eta mesfidati. Youtubeko kanalean ikusi ditugu herritarrak, aurpegi ezagunen bila pantailaren beste aldean. Bideo deien bidez jarraitu ditugu lagunen haurdunaldiak eta familiako tragediak. Baina azkenean kalean gaude.

Langile asko etxera bidali zituzten enpresa eta administrazio publikoek, telelana egitera. Lehen egunero Mutrikutik Ondarrura, Bilbora, Zarautzera, Azpeitiara, Durangora edo Gasteizera joaten ziren guzti horiek nor bere etxeko txoko lasai edo itogarritik lanean aritu dira. Beste asko ERTEra, etxera alegia, ERTEA irtetea ez izateko esperantzan kontatu dituzte normaltasunera itzultzeko geratzen ziren asteak, eta, ondoren, hilabeteak. Beste hainbatek lanean jarraitu dute, dena eta denok ez hondoratzeko.

Hala ere, gaur herriko merkatari eta tabernariei begira jarri nahi nuke. Lehen alarma egunean eta osasunaren mesedetan pertsiana jaitsi zuten herriko denda, taberna, ileapaindegi, fisioterapeuta eta estetika zentro horiei buruz. Beste birus bati erantzuteko lanean ari zirela iritsi zen Covid 19a. Amazone mundu mailako pandemiaren aurkako immunitatea oso baxua da oraindik eta ahul harrapatu zituen asko. Itxialdian egon ginen egunetan han eta hemen ageri zen komunikabideetan online salmentako munstro handien irabaziak gora eta gora ari zirela besteak birusak jota pertsianak jaitsi zituztenean.

Ireki dituzte ateak, pixkanaka eta tentuz. Nik dakidala guztiek eta bakarren bat gehiagok ere bai. Bejondeizuela! Behar zaituztegu, eta, orain, inoiz baino gehiago. Laztanak, muxuak eta besarkada debekatuta dauden honetan, asko eskertzen baita gertutasuna. Dendara sartzea eta izenez agurtzea, zer nahi duzun esatea, aholkatzea, iritzia ematea. Ileapaindegi edo fisioterapia zentroetan txanda isildu gabe eta gustura berriketan igarotzea, zuekin. Kafe bat hartzea zerbitzariaren konpainian.

Ez da erreza izango poltsikoak inoiz baino hutsago ditugun honetan gastatzea, baina gure esku dago nola eta norekin gastatzen dugun aukeratzea. Guk zuek behar zaituztegu eta zuek gu. Animo!



www.lurraldebus.eus 900 300 340 (08:00-20:00)

udako ordutegia

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	Debaraino (20:40)
Donostia	*7:55	11:30	14:30	19:30	---	*Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	*14:30	18:00	20:30	*Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:25	22:55
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45	22:15
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10	22:30
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	19:10	20:10
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	19:40	20:40
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15	---	---
Mutriku	9:25	11.25	13:25	16:25	18:25	---	---

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	10:30	14:30	17:00	20:30 (ig)	21:00 (lr.)
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	22:00
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35

(ig) igande eta jai egunetan
(lr.) larunbatetan

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15 (lr.)	8:15	orduro	20:15	21:25	22:15 (lr.)
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:30
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	---	7:45	orduro	19:45	20:45 (lr.)	21:45 (lr.)
Eibar	---	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00
Mendaro	---	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35
Mutriku	---	8:55	orduro	20:55	21:55	22:55

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	22:10 (lr.)
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	9:45 (lr.)	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	8:40 (lr.)	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	12:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	12:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:
www.kalaputxi.eus/garraioa

EROSKETA ZERBITZUA BUKATUTZAT EMANGO DUGU, BAINA ZAINTZA SAREAK JARRAITUKO DU

COVID 19ak eragindako krisiaren aurrean eta honek ekarri dituen ondorioei erantzuteko Mutriku Zaindu zaintza sare herritarra sortu genuen martxoan. Hilabete hauetan zehar etxetik atera ezin ziren herritarrei erosketak egiteko zerbitzua izan dugu martxan, orain, egoera aldatu dela eta, momentuz, egitasmo horrekin bukatzea erabaki dugu, nahiz eta Mutriku Zaindu zaintza sareak aurrera jarraituko duen.

Hasteko, herritarrak zoriondu eta eskertu nahi ditugu. 53 laguneko bolondres sarea osatu genuen eta 42 dei jaso ditugu guztira telefonoan. Nahiz eta, egin diren erosketa kopurua gehiago izan diren. Bestalde, egitasmo honek balio izan digu ohartzeko oraindik ere Mutrikun familia, lagun talde eta etxapeetako zaintza sareek martxan jarraitzen dutela, eta ederra da hori! Zorionak Mutriku!

Uste dugu hasierako helburuak bete ditugula eta behar zuten horiei oinarrizko zerbitzu bat eskaintzeko gai izan garela, beraz, eskerrik asko guztioi. Ziur gaude Mutriku Zaindu bezalako sare herritarrak oinarri sozial garrantzitsu bat izan daitezkeela aurrera begira egon daitezkeen krisi sozioekonomikoetarako, eta, beraz, erosketak egiteko abiatutako zerbitzua, momentuz, bukatutzat ematen badugu ere, Mutriku Zaindu sareak martxan jarraituko du uneko beharrei erantzuten saiatzeko asmoz.

Bukatzeko mila esker bolondres guztiei eta baita telefonora dei egin duzuen herritar guztiei ere. Espero dugu mutrikuarrok elkar zainduz bidean topo egingo dugula!

Zorionak eta animo!

MUTRIKU ZAINDU

.....

Badator udia, eta urtero bezela allatuko dia Malenak ere. Uztail bukaeria, herritxarron jaixak. Aurten, badatoz bai udia eta baitxa uztailla bukaeria ere, baina Malenik ez dala ikusten ematen deu. Etorkizuna lauso, eta gure galdera danen erantzunak ere halaxe. Zelakuak izango ote dia aurtengo Malenak? Erantzun baten zain goz mutrikuarrok. Eta aldi igualian, mutrikuarron erantzunaren zaiñ Malenak ere. Orandik galdera sakonagua: zer dia Malenak? Galdera bat eta hamaika erantzun. Mutrikuarron egutegixetan kolore argiz azpimarrautako egun horrek, zer dia zuretzat?

Hamaika erantzun horretatik, asko itxo egin dia aurtengo egoeriaren aurrian. Argi do orain arteko definizio eta kontzeptuek 2020 hontan ez digutela balixoko. 'Malenik ez da egongo aurten', esaten deue ezkorrenek. Hala ere, Bizixok argi daka martxan jarraitxuko doala. Orain arteko moldiak albo batera utzi biharko ditxugu, aurtengo egoeria moldatuta forma berri bat emateko geure jaixei.

Forma berri horta moldatzeko asmotan, Jai Batzordiak hainbat ekimen daka buruan urteroko egitarauaz gain. Bestiak beste, Covid19xan ondorixoz kaltiak eta galera ekonomikuak jasan eta jasango ditxuzten herritxarrekin bat nahi degu egin, eta horretako hainbat ekimen herriratzen jungo gera. Ekimen horren helburuak herriko langille eta eragilliekin batera egoeriari erantzuna ematia izango da, bai Jai Batzordetik eta bai herritxik, zapalkuntza kasuei modu kolektibuan erantzun eta aurre egitxeko.

Hasieratik argi euki degu baitxa ere, aurtengo Malenak, ospatzeko ez ezik, aldarrikatzeko eta herritxarrok elkartzeko egunak ere izango dirala. Urtero bezela, eta aurten iñoiz baino gehixago, Malenak herritxik eta herrixantzako izatia nahi degulako.

BIXIXO JAI KONPARTSA

MALEN JAIAK BERTAN BEHERA

Aurtengo urtea berezia suertatu da eta, egunerokotasunean ikusten dugunez, duela hiru hilabete nekez imajinatuko genituen aldaketak ekarri dizkigu Covid-19 koronabirusak eraginda bizi dugun egoerak. Egoera aldakorra da egunetik egunera, astetik astera, eta arduratsu jokatu beharra nagusitzen da, maila pertsonalean eta maila kolektiboan.

Gauzak horrela, udara begira udalak erabaki du jende multzo handiak erakarriko dituen ekitaldirik ez antolatzea. Erabaki horren baitan, Malen jaiak ere bertan behera uztea erabaki da, jende multzoak batzeko berezko uneak baitira jaiak definizioz.

Udalak Malen jaietan parte hartzen duten eragile guztiak elkartu zituen eta lehenengo eskutik eman zien erabakiaren berri, arrazoi sanitarioak aurretik ipinita eta zuhurtziaz jokatu beharra nabarmenduta.

Herritar asko eta asko urte osoa jaien zain egoten dela jakinik, gogoratu nahi dugu herri moduan orain arte jokatu dugun moduan jarraitu beharko dugula udan ere. Izango dugu aukera aurrerago ere jaiez gozatzeko, beharbada beste momentu eta modu batzuetan.

Amaitzeko, udan ere elkarren artean osasuna zaintzeko neurriak hartzeko gomendioa ematen dizuegu, norberaren arduratik guztion ardurara iristeko, nork bere aldetik eginda errazagoa izango delako helburua betetzea, alegia, Mutriku herri osasuntsua izatea.

MUTRIKUKO UDALA

*Kalaputxi*k irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Datozen ordenean eta espazioak eskaintzen duen aukeraren barruan, moztu edo hurrengo hilerako laga dezakegu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira posta arruntez edo posta elektronikoz.

Argitaratzailea Karenka Komunikazio Elkartea Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku
Tel. 635 748 393 e-posta kalaputxi2001@gmail.com / aldizkaria@kalaputxi.eus
Webgunea: www.kalaputxi.eus Bloga www.kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea Mutrikuko Udala Kolaboratzaileak Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga, Ibon Aginaga
Tirada 2.200 ale Lege Gordailua SS-787/01 ISSN 1579-4792
Inprimategia EUSKALINPRI Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak Mutrikuko Udalaren dirulaguntza jasotzen du:

Mutrikuko Udala

“MIKEL DEUNA” EGOITZA COVID-19aren erasoan

Gogor ari da jotzen “COVID-19” birusa mundu guztian. Gurean ere alarma neurriak hartu behar izan dira haren hedatzea ekiditeko, Munduko Osasun Erakundeak (MOS) pandemia mailara igo ondoren. Konturatu orduko, baina, birusa nahiko zabaldua zegoen, eta pertsona zaurgarrienengan jo du bortizki heriotza ugari eraginez, zaharren egoitzak izanik eragin hori gehien pairatu dutenak. Gure herrikoan ez da positibo eman duen inor gertatu, baina neurri oso bereziak hartu behar izan dituzte.

Bertako zuzendari den Aintzane Uriguen Aranarekin, ELAko ordezkari sindikala den Begoña Villate Garcíarekin eta egoiliarren ordezkari den Maria Rosario Martinez de Lagos Garagarzarekin izan gara, euren bizipenak konta ditzaten Kalaputxirako.

Zentroaren martxa orokorraz informazioa lortzearren *Aintzane Uriguen Arana* zuzendariarengana jo dugu.

Noiz eta zein erabaki hartu zenituzten Covid-19a ekiditeko?

Lehenengo informazioa, beste guztiak bezala, urrutitik zetozen albisteak izan ziren. Hurbildu ahala, kezka sortzen hasi zitzaigun, otsailaren bukaera aldera Aldunditik deia jaso genuen arte, egoiliarren segurtasuna bermatzeko neurri batzuk hartu beharko zirela esanez. Bisitariak murriztea izan zen lehen neurria, soilik familiakoak etor zitezkeen, eta ez, ohi zuten bezala, Nagusilan-eko edo eskoletako umeak. Ondoren, martxoaren 10ean, bisitariei ezarri beharreko protokolo zehatzak hasi ginen jasotzen, maiztasunezko aldaketekin: bisitarien osasun egoera (kalenturarik gabe); sartzean hartu beharreko neurriak garbitasun aldetik; familiako bat lehenengo, eta, ondoren, beti berdina; bisita orduak ordu bakarrera murriztu; martxoaren 13an bisita guztiak debekatu ziren arte -telefono deiak eta teknologia berriak erabiliz, saiatu gara, gutxienez, kontaktuan jartzen euren familiakoekin-. Arnas bideetako babesak hasieratik hartu genituen gure egoitzan, nahiz eta oraindik protokoloetan argi ez zeuden, merkatuan ez zeudelako eskura, baina guk hasieratik erabili izan ditugu, ondo hornituak geundelako.

> *“garbi daukagu segurtasuna ekonomiaren aurretik dagoela*

Nola bizi izan duzue egoera hainbat zaharren egoitzetan gertatzen ari zena ikusita?

Sekula bizi gabeko egoera zenez, gure eguneroko lanean aldatzen zihoazen protokoloei egokitzen joan gara, eta ahal izan dugun mailan aurreratzen ere. Baina maila pertsonalean oso gaizki pasatu dugu, eta pasatzen ari gara, birusaren transmititzaile izan gaitezkeelako, eta horren ondorioak imajinatze hutsarekin bakarrik..., kezka! kezka handia!

Kanpotik zahar egoitzei buruz azaltzen ziren albisteekin (positibo ugari eta egunero-egunero hildakoen kopurua handituz...) gure egunerokoa latza izan da. Bestalde, momentu honetan, bi errealitate paralelo bizitzen ari gara, bata, kezkaz beteriko hemen barneko bizitza, eta, kanpokoa bestea, non ekonomia sustatzeko ezarri diren neurriak segurtasuna bermatzeko beharrezkoak baino indar handiagoa dutela dirudien batzuetan.

Zein egoeratan zaudete?

Momentuz -elkarrizketa hau egitean 2.fasean gaude-, langileak izan ezik, inor ez da sartzen egoitzara, mantenua edo konponketaren bat egitera ez bada. Egoiliarren egoera hainbeste denboran egoitzatik atera gabe, familiako inoren bisitarik jaso gabe, ez da erraz eramateko gauza; batzuek ulertzen dituzte egoeraren berri emandako azalpenak, baina egoera kognitiboa makalduta dutenak ulertu ezinean daude inguruan gertatzen ari dena. Gero, pertsona bakoitzak ere, era ezberdinean hartzen du bizitza bera, eta badaude nahiago dutenak bisitak jaso, ondorenei garrantzia kenduz, baina jarri beharreko neurriak orokorrak dira, eta ezin dugu bereiztasunik egin.

Osasun arlo teknikoan, Osakidetzako mediku bat dugu bere lan orduetako zati bat gure egoitzara dedikatuta, eta gure hiru erizainek betetzen dute auxiliar, psikologa eta gizarte langilearekin batera egoiliarrek behar duten zuzeneko arreta. Arreta zuzena ematen ez duten langileek ere garrantzi handia izan dute prozesu honetan, sukaldariek, ofizinako langileek, eta, batez ere, garbitzaileek lan izugarria egin dute egoitza garbitu eta desinfektatzen. Berrogeita zortzi egoiliarrentzat dugu lekua, eta une honetan berrogeita lau dira.

Nolakoak izango dira hemendik aurrera eman beharreko pausoak?

Orain arteko neurrietako bat izan da egoiliarrak talde txikietan eta beti berdinean sailkatzea eta eguneroko bizitza espazio mugatu baten egitea, horrela arriskuak eragin-gune txikiak izan dezan. Horretarako aukera gehiago izan dugu Eguneko Zentroa itxita egotean, espazio hori ere erabili ahal izan dugulako. Baina 3. fasean ireki egingo da, eta gehienek etortzeko asmoa dutenez, aldakuntzak beharko ditugu. Horrekin batera, bisitei ere ateak zabalduko zaizkie, nahiz eta neurri batzuk hartuko diren: distantziarena batik bat, eta metakrilatozko panelak jartzea; astean behin izango dira soilik familiakoentzat eta hogei minutukoak gehienez. Sartzen diren guztiek babes pertsonalak jantzi beharko dituzte eta garbitasun neurriak erabili. Bisita ondoren erabilitako tokia desinfektatuko dugu.

Egoiliarrek, gutxienez, senideak eta lagunak ikusi ahal izango dituzte hurbiletik eta beraiekin aurrez aurre hitz egin. Merezi dute. Ea noiz iris-

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

ten den elkar besarkatzeko eguna.

Zerbaiten beharra nabaritu al duzue?

Fundazio bat da gure egoitza, administrazio publikoarekin kontzertatua, eta garrantzizko inbertsioa egin behar izan dugu babes pertsonaleko ekipoetan eta arestian aipatutako eremu mugatu horiek hornitzen beharrezko ekipoekin, eta, bereziki, pertsonal arloa da indartu dena Eguneko Zentroko langileak egoitzara pasatuz, eta ordutegia luzatu egin behar izan delako, behar bezalako arreta eskaintzeko.

Eguneko Zentroa irekitzean, eremuak egokitu eta atondu egin beharko ditugu berriro, baina garbi daukagu segurtasuna dagoela ekonomiaren aurretik eta egitekoak egingo ditugula.

Gauza bat azpimarratu nahi nuke egoera honen aurrean gertatutakoaz: gure langilegoaren parte bat urte eta erdian zebilen greban, baina pandemia honen aurrean greba utzi dute eta gai izan gara guztiok, ohituta gauden eran baino indartsuago, ekipo bezala funtzionatzeko, bakoitzaren interes pertsonalak alboratu eta egoiliarrei begira jarriz. Ordutegiak aldatu ditugu, zenbait baldintzatara moldatu behar izan gara, baina denok batera egin dugu arraun. Pozik nago egin dugun ahaleginarekin.

Zela ikusten duzu etorkizuna?

Momentuz, zaila. Lehen aipatu bezala, bigarren errealitate bat bizitzen ari gara hemen, eta nahiz eta Munduko Osasun Erakundeak dioen brote-berritze bat gero eta urrunago ikusten duela, pertsona zaurgarrien inguruan bizi garenok kezka ezin albora utzi. Jabetzen gara osasun arloan prestatuago daudela aurre egiteko ditxosozko koronabirus honi pandemiaren hasieran baino, baina... Adi jarraitu behar dugu!

Hilabete hauetan langileek eguneroko lanean izan dituzten gorabeherak ezagutzearren *Begoña Villate Garcia* ordezkariarengana jo dugu.

Nola bizitzen ari zarete konfinatze egoera hau?

Pandemia honen aurrean, mundu guztiak ditu gehiago edo gutxiagoko kezkak, eta hartu ditu beharrezko iruditu edo ezarri zaizkion neurriak, baina, gure kasuan, dugun lana dela-eta, ezin izan dugu inoiz ahaztu, ez egoitzaren barnean ez kanpoan, neurri oso bereziak erabili behar genituela eraginik ez izateko zaintzen ditugun adinekoen gain. Are eta gehiago, hedabideek zabaltzen zituzten albisteen aurrean: zahar etxeetako egoerak bereziki, hainbeste hildako eta positibo emandakoekin.

Agindutako protokoloetara egokitu gara, ahaztuaz gure egoera pertsonalak, eta moldatuaz gure egunerokotasunak egoera berriaren aurrean: ordutegi berria, lan-talde mugatuak, eta, batik-bat, gure lanari oraindik eta zentzu handiagoa emanez. Antsietate handiz bizi izan genituen hasierako egunak, poliki-poliki hartutako neurriak beren fruituak ematen ari zirela ikustean lasaitzen joan gara, baina, beti, tentu handiz.

> *"tristea bezain ederra izan da egoiliarrekin izan dugun harremana*

Bestalde, satisfakzioz ere bizi izaten ari gara egoera, nolabait, gure bokazioa goiko mailan gauzatzeko aukera izaten ari garelako. Egoera fisiko zein kognitibo ezberdinak dituzten egoiliarrak ditugu, eta bakoitza bere izaera eta nortasunarekin. Jabetzen gara zein garrantzizkoak garen egoera honetan, geu baikara hurbilean dituzten pertsona bakarrak, guregandik espero dituztela maitasunezko keinu guztiak, sostengu bakarra garela ulertu ezin duten egoeraren aurrean... Zein triste, eta zein eder!



ALEX ELEKTRIZITATEA
Alexander Elezgarai Agirrebengoa
· instalakuntza elektrikoak · domotika · telekomunikazioak
· mantenu eta muntaia elektrikoak · argiztapen diseinuak
638 713 685 • alexmutriku69@gmail.com · Mutriku


Kalbaixo JATETXEA
Laranga Auzoa
Tel. 943 60 32 56
kalbaixo@gmail.com
MUTRIKU - Gipuzkoa

“greba eta gure kontuak ahaztuta, gure adinekoei begira jarri gara

Zuen egoera pertsonalak ahaztu dituzuela esatean, zer esan nahi duzu?
Ia urte eta erdian 140 bat greba egun egin ditugu, batetik, gure lanen balioa kontuan har ditzaten, eta, bestetik eta gehienbat, gure egoiliarrek behar duten zaintza maila gauzatzeko ratio egokiak -lana eta langileen arteko neurriak- izan daitezen. Administraziotik espero genuen erantzuna ez dugu jaso; ez gaituzte kontuan izan. Baina egoera honetan, ahaztu ditugu grebak eta bestelako kontu guztiak, eta gure adinekoei begira jarri gara buru-belarri.

Nola begiratzen diozue etorkizunari?
Ez dugu ortzi-muga garbirik, konpon dadila arazo hau ahalik eta azkarren, eta eskakizun bat egin nahi nieke hau irakurtzen duten guztiei: arduraz jokatu, ez dugu txantxetako gauza! Kanpoan bizi denak eta pertsona zaurgarrien inguruan bizi denak ez dute zer ikusirik.

Gure errebindikazioei begira, hitz goxoak entzun izan ditugu azken hilabete hauetan gure politikoengandik, oso pertsona garrantzizkoak omen gara, eta neurriak hartuko dituztela, baina hitzetik ekintzetara..., denborak esango du! Jendea gaiaz sentsibilizatu dela garbi ikusi dugu. Hala bedi!

Hilabete luzeak gertatu dira egoiliarrentzat eta haien senideentzat. Horien guztien bizipenak gertuagotik ezagutzearren *Maria Rosario Martinez de Lagos Garagarza*rengana jo dugu.

Nola daramatzazue konfinamenduko aste hauek?
Kezka handiarekin. Ohituta gaude eguneroko bisitetara eta adi gaude eduki dezaketen edozein beharretara. Egoitza familia handi batek osatzen du, eta, jakina, asko ari gara faltan hartzen. Familia horren euskarri funtsezkoak gara gu, eurak guretzat diren bezala.

Egoera honek gure arteko ohiturak zeharo aldatu ditu, keinu bat nahikoa dutenentzat, zein solasaldiak eta pasierak egiteko gai direnentzat. Gaurko teknologiak ematen digun aukerak erraztu egiten digu kontaktua mantentzen, baina ez da berdina aurrez-aurre egotea ala distantziatik, telefono batek ematen dizun ahotsa entzun edo irudia ikustea. Begiradak, muxuak, besarkadak, elkarrizketak, kantuak..., dira gure artean faltan hartzen ditugunak. Oso ondo pasatzen dugu denon artean!

Egoiliarren artean, egoera maila ezberdinean pairatzen dituztenak daude, egoera kognitibo gutxitua dutenak, zein, hedabide ezberdinen bidez, gertatzen denaren berri garbia dutenak: hauek jakitun dira koronabirusaren eguneroko gorabeherez, baita suertatzen diren gertakizun arduragabeez ere, eta horiek ez dutela inolako mesederik egiten normaltasunera iritsi nahi badugu.

“senideak harro gaude Mikel Deuna egoitzako kide guztiek gure familiakoei emandako guztiaz

3. fasea hastean -ekainak 8- hasi gara bisitak egiten ezarritako neurri guztiak erabiliz: manparak prestatu dituzte aurrez-aurrerako, eta, bisitaren ondoren, lekua desinfektatzen dute. Hurbiltasun hori nabari dute gure familiakoek. Ea noiz iristen den besarkadaren eguna.

Publikatuko den elkarrizketa hau nahi nuke erabili -WhatsApp bidez onartua izan da beste egoiliarren familiakoekin- esateko satisfakzio handiz aitortu eta eskertu nahi dugula MIKEL DEUNA EGOITZAK izan duen portaera pandemia honen aurrean. Esfortzu handiz moldatzen jakin dutelako ezarritako protokoloetara, gehi gure familiakoei transmititu dien maitasunagatik; zuzendaritzari, langileekin batera bat eginik jakin duelako erantzuten aurrean aurkitu duten erronkari.

Oso harro sentitzen gara zuekin, eta ez dugu inoiz ahaztuko egiten ari zareten guztia. Eskerrik asko bihotzez!







KORONABIRUSA

BI METRO

BATZEN GAITUEN DISTANTZIA

Leku itxietan ezin badiozu **segurtasun distantziari eutsi,**

ERABILI MASKARA





Sintomak badituzu, **ISOLATU**
eta jarri harremanetan zure osasun zentroarekin

Informazio gehiago: **www.euskadi.eus/koronabirusa**

Nigatik, zugatik, bi metro.

Osakidetza
Mutrikuko Udala
KALAPUTXI
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

IKASKETA GELAK MARTXAN DIRA

Udaleko Gazteria batzordearen ekimenez hamasei urtetik aurrerakoentzat ikasketa gelak zabaldu dira Zabiel kultur etxean eta Konde kaleko bulegoetan. Helburua, ikasteko tokia behar duten ikasleek lasaitasuna, isiltasuna eta tokia izatea. Orain artean herritik irten behar izan duten ikasleek, hortaz, aurrerantzean izango dute toki bat ikasteko, liburutegiko espazioaren erabilera irekiak ez baitu horretarako aukera bermatzen.

Ikasketa gelak erabiltzeko, aurrez liburutegian izena eman beharko da, horretarako fitxa bat beteta, eta gelen erabilerarako araudia onartu beharko da. Hori eginda, norberaren erabilerarako izango den giltza bat jasoko da.



TAO ZERBITZUA BERRIKUNTZEKIN


Burumendin eta Saturraran hondartzan aparkalekuak antolatzearren TAO sistema ezarri zen aspaldi. Helburua, bertara ailegatzen diren ibilgailuak modu antolatuan aparkatzea, espazioz eta denboraz. Beti bezala, aurreko urteko ordainketak udalarekin egunean dituzten herritarrek doan izango dugu aparkatzea, eta kanpokoak diren ibilgailuek ordaindu egin beharko dute kotxea bertan uzteagatik.

Aurtengoan pegatinarik ez da erabiliko, kamara bidezko sistema erabiliz jakingo baita ibilgailua herrikoa den ala ez, eta herriko bada ordainketak eguneratuta ote dituen. Berrikuntzen artean, kotxea uzteko ordutegi mugatua, gehienez hiru ordutan uzteko baimenuko baita, hondartzetako afluentzia mugatzearren.



ODOLA EMATEA ALARMA EGOERAN

Mutrikuko odol-emaleen elkarteak eskerrak eman nahi dizkie koronabirusak eragindako alarma egoeran egin diren odol-bilketa egunetan Zabiel kultur etxera hurbildu eta odola eman duten herritar guztiei. Kezka eta beldurra nagusitu diren garai honetan beharbada bestetan baino beharrezkoagoa izan da odola ematen jarraitzea eta mutrikuarrek ondo erantzun diote deiari. Aurrera begirakoan ere, deia egiten da odola ematen jarraitzeko, gure lurraldeko ospitaleetan etengabea baita odol-beharra. Hurrengo deialdia, abuztuaren 21ean, jakinaraziko den tokian.



i-M ARKITEKTURA
Egurrezko egiturak
Fatxadak eta teilatuak
Baserriak
Eraberritzeak
ite
JUAN GISASOLA 10 (EIBAR)
TLF 618 854 121
TLF 623 183 075
www.imarkitektura.com
IRIONDO MAS ARKITEKTURA

BAINU EREMUA MUGATU DA

Udalak Eusko Jaurlaritzako Portuen zuzendaritzarekin hitzarmena sinatu zuen Moilaberri eta Danborraren bitarteko gunea kudeatzeko. Hitzarmen hartan jasotakoen artean jaso zen igerirako gunea balizatu egin beharko litzatekeela igerilariek arriskurik ez izateko inguruan ibiltzen diren motordun enbarkazioekin. Igeri-gunea mugatzeko buiak ipini dituzte sokari lotuta eta pondoa emanda. Lan bikain hori Mutriku Arraun Taldekoek egin dute, estropadetako balizak jartzen duten esperientzia baliatuz.



ZERO ZABOR URETAN

*MATER Ontzi Museo Ekoaktiboa*k ZERO ZABOR URETAN ingurumen sentsibilizazio kanpaina antolatu du eta uztailean zehar Euskal Kostaldean portuz portu ibiliko da ontziratua. Kanpaina honen bidez, itsas hondakinak aitzakia, herritarrak gerturatu eta inplikatu nahi dira ingurumen arazoen konponbidean. Mutrikuko portuan, uztailaren 19tik 21era izango da Mater ontzia.

COVID-19-tik eratorritako osasun-krisiaren esparruan, itsas hondakinen arazoa areagotu egiten ari da ekosistema naturaletan eta, ondorioz, pertsonen osasunean zuzenean eragiten du ere bai. Egoera horri aurre egiteko, kontsumitzaile informatuak eta parte-hartzaileak izateak garrantzi handia du. Itsas zaborraren %80 lurreko jatorria du, hondakinen gaur egungo kudeaketatik eta, oro har, gizartearen sentsibilizazio eta konpromiso eskasetik datorrena batez ere.

ZERO ZABOR URETAN itsas kanpainak arazo hau ikusgai jartzen saiatzen da hausnarketa prozesu parte-hartzaile bat bultzatuz bisitatzen diren portuetan.

Kanpainak bisitatuko dituen portuetako bat Mutriku izanik, herritar guztiak bertan parte hartzera gonbidatuta daude, ondorengo jarduerak burutzeko aukera izanda (COVID19 protokolo bereziekin):

- Bisita gidatua ontzi museora.
- Erakusketa ibiltaria portuan bertan.
- *#EKINZeroZaborUretan* hondakinak prebenitzeko ideia lehiaketa.
- Kostaldeko garbiketa.
- Hondakinen Top-10.

Bestetik, ZERO ZABOR URETAN kanpaina Mutrikuko portuan egongo den bitartean, interesa izanez gero, ontzi museora doako bisita berezi bat antolatzeko aukera egongo da aurrerago adieraziko denegunean eta ordutegian. Bisita hau gure kontsumo ohiturak eta hondakinen kudeaketari buruzko hausnarketa egiteko baliagarri izan daiteke, baita orain arteko ohitura ez jasangarriak aldatu eta ideia berriak aztertzeko aukera izateko ere.







Oier Agirrezabala Fundazuri

"KALITATEZKO NEKAZARITZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEA ERABAKI NUEN"

Oier Agirrezabala Fundazuri (1978) Olabarrieta auzoko "Erdikua" baserrian jaio zen. Betidanik etxaldean lan egiteko ilusioa izan du, eta oraingoan bere ametsa errealitate bihurtu du kalitatezko oilaskoak haziz.



Nolatan abiatu zara horrelako proiektu baten?

Baserrian zerbait egiteko asmoa betidanik izan dut buruan; alegia, etxe inguruan zenbat eta denbora gehiago pasatu, nahiago. Oilaskoak maiz hazi ditugu etxean, eta animaliak beti gustatu izan zaizkit. Ogibide honek, berriz, familiarekin denbora gehiago egoteko eta beraiez gozatzeko aukera eman dit.

Hasierako informazioaren bila nora zuzendu zinen?

Hain zuzen ere, Elgoibarren badut lagun bat, eta haren bitartez hasi nintzen bide honetan: berak ere, LumaGorri baserriko oilaskoen ustiategia du, baita Basetxerri txerriak ere. Nik hari galdera egin eta LumaGorri elkarteko zuzendaria den Mari Jose Muruarekin jarri ninduen harremanetan.

Zein baldintza edo eskakizun jartzen dute horrelako ustiategi bat jartzeko momentuan?

Alde batetik, Diputazioak baldintza batzuk jartzen dizkizula kontutan izan behar dugu, eta bestaldetik, LumaGorri elkarteak ere beste eskakizun batzuk egiten dizkizu. Azken honek, edo Labelak kalitatezko oilaskoa izan dadin lur-zail zehatz bat eskatzen du. Horrez gain, Oilaskoen hazkuntza prozesu guztia neurtzen da.

Aldiz, gazte baserritar profesional gisa, Diputaziotik laguntzak jaso ahal izateko baldintza batzuk ere eskatu dizkidate. Baita, baserritar profesionala izateko ere. Ondorioz, ordu kopuru zehatza eskatzen duten formakuntzak ere egin behar izan ditut. Horrez gain, ustiaketa eta lurrak norberaren izenean ipini behar izan ditut; baserriko lur-zailak banatuz.

Herri mailan ere, beste eskaera edo baldintza batzuk bete beharra izan ditut, eta esango nuke baldintza zailenak herrian aurkitu ditudala; dauden araudiak direla-eta.

Nolakoa da ustiaketaren prozesua?

Jaioberritan iristen zaizkigu txitak baserrira; egun

adats
ANDONILARREA
943 60 39 45 - Beheko plaza, 2

bat besterik ez dutela. Jaso bezain pronto mimo haundiz zaintzen ditugu. Tenperatura egokia izan dezaten berogailuak jartzen dizkiegu, eta oilaskoak etxolan goxo eta lasai atseden hartzeko azpiak lehor mantentzen ditugu; txirbilarekin prestatuz. Horrez gain, etxoletako aireztapena eta argiztapena asko zaintzen da prozesu osoan.

Ekarri berritan, denak etxola batean sartzen dira. Koskortzean berriz, bi etxolatan banatzen ditugu. Hala ere, hiru bat astetan ez ditugu belardira ateratzen, eta ondoren eguraldiaren arabera hazkuntza belardian egiten dugu. Irratia beti martxan egoten da oilaskoak uste gabeko soinuetara egokitu daitezen.

Zenbat denbora behar dute txitek oilasko bihurtu eta salmentarako?

Oilaskoek, guztira, 81 egunetik 91 egun bitarte egiten dituzte gurean: hiru hilabete inguru.

Eta oilaskoak kendu eta gero ze eginkizun egoten da?

Oilaskoak kendu ondoren, etxolak garbitu eta desinfektatzen ditugu. Hain zuzen ere, hamasei bat egun utzik izaten ditugu etxolak, eta hurrengo txitatxo-multzoa jasotzeko dena txukuntxukun prestatzen dugu.

Nolakoa da eguneroko lana?

Lan polita da, ordea, gainean eta adi egon behar zara. Egunero bi aldiz ematen diet jaten: elikadura asko zaintzen dugu. Alegia, hiru pentsu mota ematen diegu beraien hazkuntza osoan. Horrez gain, belardian pasatzen dute egun osoa. Goizean atexkak irekitzen dizkiet kanpora irtetzeko, aldiz iluntzean itxitzera joaten naiz eta denak barruan daudela ziurtatzen dut. Ez dira gutxi-eta, guztira hiru mila oilaskotik gora izango ditut momentuan. Beti ilunarekin batera erretiratzen dira, azkeneko momentu arte aprobetxatzen dute.

Ogibide honi zein alde on ikusten dizkiozu, eta zein desabantaila?

Egia esan, momentuan ez dizkiot desabantailarik aurkitzen. Kontutan izan behar dugu hasi berria naizela, eta esperientzia gutxi dudala. Oso gustura nago momentuan, pozik sentitzen naiz. Eta, familiaren laguntza eta babes handia izan dut prozesu guztian zehar. Aldiz, aipatu behar da horrelako ustiaketa batek inbertsio handia eskatzen duela, baina, ilusioz hasiz gero aurrera egitea posible da.

Zuk hazitako oilaskoak dastatzea posible da?

Bai, noski! Hori bai, aurrez jakin beharko nuke gorde ahal izateko.

Gazte baserritarrei zer esango zenieke?

Egoera ez dago erraz, batez ere, ganadu munduan. Baina, nik jarri dudan ustiaketa bezalako ereduek ilusioa ematen dute. Dena martxan jarri aurretik handik eta hemendik informazioa lortzen ahalegindu nintzen, eta, bidean asko animatu ninduten baserritarrak aurkitu nituen. Esperientzia duen jendea, eta oso jatorra. Inguruan ere baditugu ereduak: Elgoibarren, Azkoitian, Aizarnazabalen, Elorrion, Arruan...


Horrez gain, eskerrak eman nahi dizkiet bidean lagundu nauten guztiei, baita Mutrikuko udalari ere.

Oier, baserritar gaztea izateaz gain bertsozalea ere bazara. Bertsoren bat botako zeniguke?

Egunean zehar zerbaiten falta
egiten nuen somatu,
ahalegin asko egin ondoren
gustuko lana topatu,
zelaian aske ibiltzen dira
egiten ditut mimatu,
oilaskoak hazten ta jaten
orain nahi nuke gozatu.

Bejondeizula, Oier!







Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak...)
egunero zabalik
943 60 34 39 · 636 386 016 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku

Gorritxu autoak
Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea
MUTRIKU 943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com

SASOI BATEKO ESKOBAK

Eskobak edo erratzak erosi egitxen ditxugu gaur egun, baiña sasoi baten baserri inguruko landarak erabillitxa mota askotako eskobak egitxen zitxuen mutrikuarrek. Baserritxar eta kaletar askok, oraindio ere, goguan dakae zelakuak ziran aspaldiko eskoba harek.

Mutrikun, bai kalian, bai baserrialdian, "eskobia" esaten zako tresna ezagun horri. Jeneralian behia edo lurzorua garbitzeko erabiltzen bada ere, edade batetik gorakuek badakixe sasoi baten eskobak beste gauza askotarako ere erabili zeikezela.

Erderazko "escoba" hitza latiñetik dator (scōpae,-arum). Latiñez, 'bedar brintza edo txortia' esanahixa zakan. Azken baten, eskobatzeko bedar edo landarak erabiltzen ziralako; baitxa gure artian ere.

Gure herrixan erabilli izan diran eskoba ezberdiñen berri izatiarren, orainguan ere, gure aitxon-amonengana jo degu.

Kaleko eskobak

Herrixan hiru eskoba klase aitxatu diguez: *eskoba fiña*, *eskoboia* eta *eskoba latza*. Lehelengo bixak etxian erabiltzen ziran, eta *eskoba latza*, ostera, kalian eta fabriketan.

Etxe barrurako bi eskoba horrek erosi egitxen ziran, Arrasatenian konparaziotarako. *Eskoba normala* (edo fiña) biribilla zan eta kertentzat kaiñaberia zoan; espartzazkua (Stipa tenacissima) zan eta sukaldia, balkoia eta abar eskobatzeko erabiltzen zan. Aurrerago, biribillak izatetik "tabla" tipokuak izatera pasatu ziran, askoz egokixaguak.

Behia egurrezkua zan tokixetan beste estilo batekua erabiltzen zan: *eskoboia*. Egongelan eta geletan (kuartuetan) erabiltzen zan, "*lustria edo brillua zauan tokixan*". Eskoba normala baiño leunagua zan. Eskoboiarekin armaixo azpixak, alfonbrak eta ohe azpixak pasatzen ziran. Esan diguenez sasoi baten zaldixen zurdakin egindakuak ziran.

Hirugarren tipoko eskobia izentatzeko, batez ere, *eskoba latza* erabiltzen zan Mutrikun; dana dala, *eskoba lakarra* eta *eskoba garratza* ere aitxatu digue. Torniautako kerten lodi samarra eta luzia zakan, eta alanbrez lotuta kiñarrezko (Erica arborea, Erica vagans...) adar mehe-meheiak zakazen. Obretan eta fabrikak garbitzeko erabiltzen zan *eskoba latza*: Busto, Denticci, Yurrita, Calongero Billante...

Mutrikuko kale-garbitzailliek ere *eskoba latzak* erabiltzen zitxuen. Olatz baillarako Isasimendi baserrixan (Lorentzo Lejardi) egitxen zitxuen barrenderuentzako eskoba latzak. Halakuak erabiltzen zitxuen 1940ko hamarkadan Joxe Domingo Arrizabalaga eta Segundo Beitia kale-garbitzailliek, baitxa ondoren etorri ziran Segundo Jimenok eta Juan Etxeberria "Ataun"ek ere. Bizkarrian eskobia, eta eskuetan otarra txanbil haundixa eta palia hartuta ibiltzen ziran kalerik kale.

Baserriko eskoba latzak

Baserrixetan asko erabiltzen ziran *eskoba latzak* (*eskoba gogorrak* edo *eskobazarrak*); bertan egitxen zitxuen gaiñera. Korta ingurua (aska aurria, esaterako), ganbaria, atarixa... garbitzeko erabiltzen ziran eskoba gogor harek. Asto korotz lehorrak batzeko ere ezin aproposagua ei zan *eskoba latza*.

Kiñarrezko eskoba latz hari, baserritxar batzuek gogoratzen deuenez, "*erratza*" esaten zixuen lehengo zaharrek. Kalian erositxako bestelako eskobak "eskobak" ziran, ez "erratzak".

Eskoba kertenak egitxeko, batez ere, hurritza, haltza eta alkazixa erabiltzen zeuen baserritxarrek.

Eskoba mota gehixago

Kontu jakiña da baserrixan kalian baiño askoz eskoba klase gehixago erabiltzen zirala. Hona hemen batzuk:

Gisatsa

Gisatsa (Mutrikun *gixatza*, *gixetza*, *kixatza*, *ixatza*...) landaria ere asko erabilli izan da eskobak egitxeko. Bere zientzia-izenak (Cytisus scoparius) landara horren erabillera nagusixa salatzen deu. Kiñarria baiño makalagua da *gisatza*. Bandixuak, sapaixak, atarixa eta abar garbitzeko aproposa zan, baitxa garixa jo aurretik lurra garbitzeko ere.

Astamendia

Etxe barruko garbiketia amaitxutakuan, askotan, astamendiarekin (Mentha suaveolens) egindako eskobia pasatzen zan. Izen bat baiño gehixago daukaz Mutrikun: *astamendia*, *astobendia*, *arkakoso-bedarra*... Usain gogorra daukanez, bi lan egitxen zitxuan landara honek: batetik, garbi usaiña lagatzen zoan etxian, eta, bestetik, mamorruak uxatzen zitxuan. Batez ere ardixak (edo arkakosuak) uxatzeko erabiltzen zan, baitxa uda partian azaltzen ziran txiñurrixak ere.

Txorta ederra batu eta eskoba kerten bati lotzen zakon, gero harekin kuartuak patsatzen ziran (ohe azpixak, eta bestelako bazterrak), baitxa etxeko beste toki batzuk ere (batzuek ganbaria ere bai).

Labia garbitzeko

Labako sua egitxen zanian, sua egindakuan errekiña "perekixarekin" baztertu eta gero labian geratzen ziran brasak (edo txingarrak) eta errautsak kendu bihar izaten ziran. Hortarako kerten luze bati, alanbriekin, bedar txortia lotzen zakon muturrian. Eskoba hari *ipitza* esaten zakon Mutrikun. Ipitzarekin labia ondo-ondo garbitzen zan ogixak sartu aurretik. Eskoba berezi haura egitxeko landara bat baiño gehixo erabiltzen zan Mutrikuko baillara baten eta bestian: *markuixala* (Mercurialis annua), *garua* (Pteridium aquilinum), *gisatza*, *kiñarria*... Batzuek, dana dala, bedarrak erabilli biharrian trapuak lotzen zixuen kerten hari.

Amaraunak kentzeko

Baserrixetako korta, bandixo eta ganbaretan *amaraun* asko egoten zan. Ez degu nahastau bihar *marma-saria* (armiarma-telia) eta *amarauna*, bi gauza dira. *Marma-saria* marmak egindako ehizatokixa da, aproposa matxinsalto, eltxo, kulumiñuak eta antzekuak harrapatzeko. *Amarauna*, berriz, kabixia bezelakua da, eta gogorragua.

Amaraun harek kentzeko ere eskobia egitxen zan, "*amaraunak kentzeko eskobia*". Lan hortarako bedar latzak bihar izaten ziran; batez ere karraskia (Ruscus aculeatus) erabiltzen zan Mutrikun.

Bedar latz haura, alanbriarekin, kerten luze bati ondo lotuta erabiltzen zan. Horrezaz gaiñera, landara klase gehixago erabiltzen ziran amaraunak kentzeko: *kiñarria*, *korostixa*, *artia* eta *kurpitxia*.

Tximinixa garbitzeko

Tximinixak sarri samar garbitxu bihar izaten ziran, izan ere, etxe bat baiño gehixago erre izan da Mutrikun garbitxu gabeko tximinixak su hartuta. Tximinixa garbitzeko, etxe batzuetan kate astuna edo porra-burua erabiltzen zan. Zaku zaharrian sartu eta soka bati lotuta gora eta behera ibiltzen ziran harik eta kedarra ondo kendu arte.

Eskobia naturala izan gabe ere, baserri batzuetan gorago aitxatutako *karraskia* edo *korostixa* erabiltzen ziran. Soka bati lotuta, lagun bat teillatutik eta bestia sukaldetik, gora eta bera ibiltzen ziran tximinixa barruko kedarra "eskobatzen". Lan horretarako *gari-azaua* ere erabilli izan da Mutrikun: garixa ebaki eta tximinixa-zuloaren tamaiñako kuadratua egitxen zan, eta, gero, kate bati lotuta gora eta behera ibiltzen zan.

Eulixak uxatzekuak

Ganauek asko sufritzen deue udan: berua, eulixak... Soluan lanian zozela, idi eta behixei eulixak etortzen zakuezen begi ingurura, eta, jakiña, buztanarekin ezin kendu. Idi aurrian, itxulan zabillenak eulixak uxatzeko lana ere bazakan. Arbola adar bat, haritza konparaziotarako, animalixen begi aldian eraginda uxatzen zitxuan eulixak. Baiña ostrodun beste edozein adarrek balixo zoan (hurritza, haltza, garua...). Adar horri *itxuskixa* (edo *itsuskixa*) esaten zakon. Bitxixa bada ere hitz horrek herri batzuetan "eskobia" esanahixa dauka. Joseph de Araquistain itziartarrak ere halaixe jaso zoan 1746ko hitz zerrenda baten: "Escoba, *ichusquia*. Barrer assi, *ichusquitu*".

Ganauen eulixak uxatzeko ezeze sukaldeko eulixak paretik kentzeko ere erabiltzen zan adartxo bat. Adar hari *illeskixa* esaten zakon. Hortarako ere ostrodun adarra bihar zan. Ondo-ondo garbitxu eta eskura eukitzen zan bihar zanerako. Konparaziotarako, udako jatorduetan famelixa jaten ziharduan bitxartian etxeko batek (aitxak edo amak jeneralian) illeskixarekin eulixak uxatzen jarduten zoan.

Bestelako eskobak

Baserritxar batek azalduta dakigu batzuetan (gitxitxan) astaemiak umia eukitxakuan ez doala onartzen bere astakumia. Hori gertatzen zanian asunarekin egindako eskobia egitxen zan: asunak batu eta kerten bati lotzen zakozen. Gero, eskoba harekin astaemiaren errapiak igurtzitzen ziran. Halaixe, astakumiak bere amaren errapietatik esnia hartzen zoanian asunek eragindako azkuria kalmatu egitxen zakon.

Gabero sukaldeko txamarrak eskobatu

Eskoba (edo erratz) eta palarekin batzen ziran hondakinak izentatzeko Mutrikuko hitz erabilgarrixa ikasi det oraintsu: *txamarrak*. Esaterako, "*batu eizuz zikin-txamar horrek...*". Herri batzuetan samarrak esaten zakuen; gorago aitxatu degun Araquistain itziartarrak ere badakar (1746.urtian): "barreduras, *samarrac* en plural".

Ohera juan aurretik sukaldia eskobatzeko ohitxueria zauan Mutrikun, izan ere esaeria zan hori egiñ ezkero gabaz Amabirjiñak dantzan egitxen zoala bertan; garbitxu gabe utzi ezkero, berriz, sorgiñek egitxen ei zeuen dantzan.

Aspaldiko eskobak

1821.urtian, Beheko plazan konstituziuaren aldeko plakia jartzeko ospakizunetan bi eskoba klase erabilli ziran: latzak eta bigunak edo leunak. "*dos escobas fuertes pª limpiar el Juego de Pelota y la Plaza de la Constitución*"; "*dos escobas suaves pª limpiar dicha Plaza y sus alrededores*".

Ezagutzen al dezu Mutrikun erabillitxako beste eskobarik?


Josu Larrañaga Arrieta



Eskoba latzak



Gisatsa



Astamendia



Markuixala



Karraskarekin egindako eskobia



Karraskia



Asunak



KORONABIRUSARI D



Arduraz eta zentzuz jokatu uneoro



Tokietako edukiera errespetatu




Ez ikutu begiak, sudurra eta ahoa, aurretik eskuak garbitu gabe



Eztula edo dominstiku egitean, behin erabiltzeko mukizapiaz estali ahoa, edota ukondoaren barrualdeaz



Eskuak maiz garbitu eta desinfektatu



Ez ikutu begiak, sudurra eta ahoa, aurretik eskuak garbitu gabe

kalean soziedadean

tabernan parkean


hitza
herriaren informazioa
herriaren hizkuntzan
herriaren zerbitzuan

islada FISIOTERAPIA
Pilates, Antigimnasia eta Hipopresiboetan izena emateko aukera dago
Fisioterapiako ordutegia: 8:30-13:00 eta 14:30-20:00
San Agustin 10, behea · 943603655 · islada@islada.org

ISTANTZIA JARTZEN



Hondartzan egondaldi laburrak egin



Ez partekatu toailak, eta etxera heltzean bainujantziak garbitu



Dutxak arduraz erabili, 2 metroko segurtasun-tartea zaindu



Sorospen-postura joan behar baduzu, 2 metroko distantzia zaindu



Ez utzi hondakinik hondartzan. Hondartzatik kanpoko edukiontzietan bota



Covid-19aren sintomak badituzu, osasun-zentroan kontsultatu

lantokian eleizan
hondartzan dendan

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

KALAPUTXI

Kaixo Txantxangorriak!



Hilabete hauek nahiko bereziak izan dira guztiontzat. Izan ere, gure etxeetako ateak itxi behar izan ditugu geure burua eta ingurukoak zaintzeko asmoarekin. Horren luzea egin zaigun denboran ez dugu ilusiorik galdu eta txantxangorriok bizirik jarraitu dugu.


Itxialdi honetan guk ere zuek denokin egon nahi izan dugu eta #TxantxangorriEtxean ekimena martxan jarri dugu. 50 egunez elkarrekin etxeak kolorez jantzi, gure sukaldeetan postre goxoak prestatu, zientzialari bihurtu eta etxeko txiki ta haundienen gorputzak dantzan jarri ditugu. Gainera, zuek egindako hainbat artelanen argazkiak jaso eta hauekin disfrutatzeko aukera izan dugu. Proposatutako jardueretan erakutsi duzuen ilusioa eta inplikazioa zirraragarriak izan dira. Argi ikusi dugu herrian artista txikiak ere baditugula!

Geu ere ekimen honetatik indarberrituta irten gara eta egoera zaila izan arren ahal den neurrian ekintza desberdinak antolatzeko gogorik ez zaigu falta. Udara begira erabakiak hartzen gabiltza baina badakigu orain arte ezagutu ditugun udalekuak ezin izango direla aurrera eraman urte honetan. Hala ere, gure erabakiaren berri izango duzue hurrengo asteetan.

Nahiz eta aurtengo udaran betiko udalekuak ezin izango ditugun egin, gure hegaldiak aurrera jarraituko du.

Espero dugu laster ikustea elkar!

Txantxangorri aisialdi taldea



ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

Zelaieta Taberna
Olatz auzoa z/g
20830 MUTRIKU
Tel. 943 604 595

GATZA eta PIPERRA

Herriko hitzak eta esamoldeak asmatu edota bilatu beharko dira atal honetan. *Bai txo! euskara elkartia*k orain dela urte batzuk herriko hitzak eta esamoldeak jaso, mantendu, eta berreskuratzeko edota zabaltzeko helburuarekin egindako **Gatza eta Piperra** lehiaketan jasotako hitzak dira hemen agertuko direnak.


GURUTZEGRAMA

1. Pertsona argala eta luzea.

2. Ezer kontatzen ez duena; mutur .....

3. Jaurti, bota.

4. Labaindu, txirrist egin; ..... egin.



LETRA-ZOPA

1. Besteen kontura bizi den pertsona; .....-txakurra.

2. Botilatxoa (garagardoarena edo).

3. Epela, ganoragabekoa edo lotsagabea den emakumea.

4. Presaka, arnasestuka.

T	Z	R	K	F	U	L	M	Z
I	O	K	A	M	T	A	A	O
X	O	P	R	J	L	U	D	N
I	N	A	O	A	E	T	A	T
T	J	A	N	L	U	S	X	Z
X	X	T	U	S	I	L	T	O
U	A	Z	I	M	I	N	E	N
A	R	Z	A	B	I	A	U	G
N	E	K	O	R	R	E	S	A

soluzioak:

GURUTZEGRAMA: 1. Kankailua 2. Estua 3. Dxu 4. Laprast **LETRA-ZOPA**: 1. Jan 2. Topolina 3. Zontzonga 4. Ixitxuan

txirritxa .com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrialdea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

ZORIONAGURRAK ZORIONAGURRAK



ARITZ
Zorionak artista! Hamarkada berri bat martxan 3.0! Zortedunak gu "90 Team" kidion artian zaitxugulako!



ENAITZ
Zorionak ekainaren 27xan 12 urte beteko dezulako. Muxuak denon partez, bereziki Eber, Ibai, Aner, Adei eta Danelen partez. Aupa txapelduna!



ENEKO
Zorionak etxeko txikixai, etxeko danon partez. Ekainean 3an bere lenengo urtebetetzia ospatu giñun. Muxutxo handi bat!



MAREN
Uztailaren 22an zure urtebetetzea izango da eta Zorionak etxeko danon partez! Aitxitxa-amamak, Hodeik eta Peiok muxu potoloa zuretzat!



PAQUI eta RAFA
Zorionak aitxona eta amona ekainaren 29an 40 urte ezkonduta egiten duzuelako eta ekainaren 30ean amonari zorionak etxeko danon partez. Muxu erraldoiak!!



LARRAITZ
Zorionak polita! Sagastiberriko guztion partez matxo haundi bat. Jarraitu beti bezalako alai.



JENNIFER
15ean zure urtebetetzea. Zoriontsu izan eta pozik bizi!



AITOR eta NAHIA
Zorionak bikote! Etxeko denon partez besarkada haundi eta matxo potolo bat. Ondo-ondo pasa.

koadrila afariak, bazkariak, bataioak, eguneroko menua
urteko egun guztietan zabalik
MUTRIKU - DEBA ERREPIDEA
LARANGA AUZOA
Etxeko Telf. 943 60 31 17
Jatetxea Telf. 943 60 31 67
SAN JUAN MUTRIKU

ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

Argazki Zaharrak



Lagun taldea hondartzan, 1960 urte inguruan
Mari Asun Elezgarai, Ana Mari Lezertua, Sofia...

Argazki zaharrak erakutsi nahi?
>> kalaputxi2001@gmail.com >> wathsapp: 635748393 >> Ansorregi zapata denda

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku


ANSORREGI
oinetakoak
erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com

ZAINTZAKO BOTIKAK

(gaueko 10ak arte)

EKAINA		UZTAILA	
22tik 25era	Lon Apraiz	1 eta 2	Amaia Zalduegi
26tik 28ra	Lasuen Elezgarai	3tik 5era	Hiart Burgoa
29 eta 30	Amaia Zalduegi	zapatu (4) goizean, Lon Apraiz	
		6tik 9ra	Lasuen Elezgarai
		10etik 12ra	Lon Apraiz
Gauetan, egunero (22:00-00:00):		13tik 16ra	Hiart Burgoa
Elgoibar		17tik 19ra	Amaia Zalduegi
Gauetan, egunero (22:00-09:00):		zapatu (18) goizean, Lasuen Elezgarai	
Celia Barandela 943 20 69 84		20tik 23ra	Lon Apraiz
Ziriako Agirre kalea 4, Eibar		24tik 26ra	Lasuen Elezgarai
		27tik 30era	Amaia Zalduegi

MENDI IRTEERAK

COVID19 dela eta aidean

uztailak 3, 4

PIRINEOAK - Tendeñera

irailak 13

Jarla eta Carla

urriak 18

BIANDITZ (844 m.) - Artikutza inguruak

azaroak 15

Lagran - SAN TIRSO (1.333 m.)

abenduak 13

Deba inguruak

Burumendi Mendi Elkartea

COVID19 dela eta
Arnoko mendi lasterketa
bertan behera geratu da

#AGENDA#

* * * * * * * * * * * * * * * * * *

# #

# #

# #

ODOLA EMATEA

abuztuak 21

hurrengoak: urriak 23 · abenduak 11 ·

Adieraziko den tokian, 18:00etan
Gipuzkoako Odol Emaileak

kalaputxi2001@gmail.com
whatsappa 635748393
uztaileko aldizkarian
argitaratzeko
uztailaren 10erako
bidali zuen mezuak

EUSKALINPRI
Soluzio grafikoak • Soluciones gráficas

ZURE NEGOZIOA SUSTATZEKO
BEHAR DUZUN GUZTIA

NURIA VÁZQUEZ
M.659 45 36 57
nuria.vazquez@euskalinpri.com

T. 943 19 20 36
info@euskalinpri.com

Irudi korporatiboa: logotipo
Logotipoa + eskuliburua
Argitalpen grafikoa
Katalogoak
Kartelak
Offset inprezio lana
Inprezio digitala



LANBIDE HEZIKETA

MATRIKULA DATAK UZTAILAREN 13TIK 17RA

ERDI MAILAKOAK

- BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK (Iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA
- MANTENIMIENTO ELECTROMECÁNICO (por las tardes)

GOI MAILAKOAK

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- MEKATRONIKA INDUSTRIALA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
- ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA (B eredua)
- AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA
- EFIZIENTZIA ENERGETIKOA ETA EGUZKI ENERGIA TERMIKOA (2. maila)

lea artibai ikastetxea
WWW.LEARTIK.EUS

Informazio gehiagorako: 94 616 90 02 mbengoa@leartik.eus

camping GALDONA

Jatetxea eta erretegia

berriro zabalik

eguneko menua

GALDONAMENDI

CÓNDOR

Arrain kontserbak



ZIZZO BILLANTE HNOS. S.A.
Industrialdea Mijoa, s/n. P - 2.1 20830 MUTRIKU (Gipuzkoa) - ESPAÑA Telf. 943 - 60.31.41 / Fax. 943 - 60.44.39

E
12.00.566/SS
C.E.